



## IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN

Irurtzunen, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 26an, arratsaldeko 15:02ak direnean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Irurtzungo Udaleko Udalbatza bilduda, ez-ohiko osoko bilkura egiteko, alde zuretik legeak agintzen duen moduan deituta, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela, eta bertan direla ondoren aipatzen diren zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 15:02 horas del día 26 de mayo de dos mil veintitrés se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

Ana Balda San Juan andrea (EH Bildu).

*Doña Ana Balda San Juan (EH Bildu).*

Ana Santander Lizaso andrea (EH Bildu).

*Doña Ana Santander Lizaso (EH Bildu).*

Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna (EH Bildu).

*Don Antonio Ollakarizketa Elizondo (EH Bildu).*

Eduardo Murugarren Frances jauna (EH Bildu).

*Don Eduardo Murugarren Frances (EH Bildu).*

Joseba Royo García jauna (EH Bildu).

*Don Joseba Royo García (EH Bildu).*

Domingo Goñi Sarasola jauna (Navarra Suma).

*Don Domingo Goñi Sarasola (Navarra Suma).*

Enrique Tenorio Ruiz jauna (Navarra Suma).

*Don Enrique Tenorio Ruiz (Navarra Suma).*

Luis Enrique de la Calle Moreno jauna (Navarra Suma).

*Don Luis Enrique de la Calle Moreno (Navarra Suma).*

Ezin etorria adierazi dute Agurtzane Garijo Peralta andreak (EH Bildu) eta Naiara Gartzia Royo andreak (EH Bildu).

*Excusan su asistencia Doña Agurtzane Garijo Peralta (EH Bildu) y Doña Naiara Gartzia Royo (EH Bildu).*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 15'02an eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 15'02 horas.*



**1.- 2023ko maiatzaren 2an ospatutako ohiko Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

2023ko maiatzaren 2ko osoko bilkuraren aktari buruzko eztabaidan hitzartzerik izan gabe bozkatu da, eta aho batez onartu da.

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2023/79tik - 2023/101 ebazpenera.**

Idazkariak alkatearen ebazpenak irakurri ditu, 2023/79-etik 2023/100 arte, oraingoan ezin izan baita zerrenda deialdiarekin eta bilkuraren gainerako dokumentazioarekin batera bidali. Azkenean ez da 2023/101 ebazpena eman.

Hitz egiteko txandan hitzik hartzerik izan gabe, osoko bilkura jakitun geratu da, alkatetzaren 2023/79 ebazpenetik eta 2023/100 ebazpenera.

**3.- 2023. urteko plantilla organikoko akatsak zuzentzea, hala badagokio.**

Alkateak gogorarazi du 2022ko martxoan Udaltzako plantilla organikoa aldatzea onartu zuela, A mailako kontu-hartzailetzako plaza bat sartuz, indarrean dagoen foru-legeria betetzeko, eta B mailako plaza ere mantentzea erabaki zela, kontu-hartzailetzako figura mantentzeko, A mailako lanpostua foru-gaikuntza lortzeko prozeduraren bidez betetzen den bitartean.

Alta, 2023an onartutako plantilla organikoan ez zen agertzen 2022ko plantilla organikoaren aldaketaren bidez sartutako A mailako kontu-hartzailetzako lanpostua. Legezko eskakizuna denez, ez dago

**1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria ordinaria del día 2 de mayo de 2023.**

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 2 de mayo de 2023, que sin toma de palabras queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 79/2023 hasta la 101/2023.**

*La Secretaria procede a dar lectura a las resoluciones de alcaldía, desde la 79/2023, hasta la 100/2023, dado que esta vez no se ha podido enviar la relación junto a la convocatoria y el resto de documentación de la sesión y, finalmente, no ha sido emitida la resolución de alcaldía 101/2023.*

*Sin que haya toma de palabras, se da el Pleno por enterado de las resoluciones de alcaldía 79/2023 a la 100/2023.*

**3.- Aprobar la corrección de errores en la plantilla orgánica de 2023, si procede.**

*El Alcalde recuerda que en marzo de 2022 la Corporación aprobó la modificación de la plantilla orgánica, introduciendo una plaza de Intervención nivel A, para dar cumplimiento a la legislación foral vigente, y que se optó por mantener también la plaza de nivel B, para mantener la figura de Intervención en tanto el puesto de nivel A fuera cubierto a través del procedimiento para la obtención de la Habilitación Foral.*

*Sin embargo, en la plantilla orgánica aprobada en 2023 no figuraba la plaza de Intervención nivel A introducida mediante modificación de la plantilla orgánica de 2022. Siendo esta una exigencia legal, no cabe duda de que*



zalantzarik akats bat dela, baina, hala ere, nahiago izan da akatsaren zuzenketa osoko bilkuraren esku uztea, segurtasun juridiko handiagoa izateko.

Hitz egiteko txanda irekita, ez da esku-hartzerik izan, eta bozketan, Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENENGOA.- 2023ko plantilla organikoa zuzentzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau argitara ematea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-taulan argitaratuz.

**4.- Hala badagokio, Udalbatza berriak aurkeztu beharreko interesen aitortenerako ereduak onartzea.**

Alkateak adierazi du, eredu generikoak direla, eta udalaren logoa baino ez zaiela sartu.

Hitzartzerik izan gabe, **Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez hala erabakita, honako hau erabaki du:**

BAKARRA.- Interesen aitortenerako ereduak onartzea.

**5.- Hala badagokio, SDGren eremuan Irurtzuno Udal Planaren zehaztapan egituratzaileen aldaketa puntuala behin-behinean onartzea.**

Alkateak gogorarazi du aldaketa puntual hori behin-behinean onartu zela, dagozkion txosten teknikoekin, eta Ingurumen Sailaren aldeko txostenak dituela.

Ondoren, Lurralde Antolamendu Sailak hainbat

*se trata de un error pero, no obstante, se ha preferido someter la corrección del error al Pleno, para mayor seguridad jurídica.*

*Abierto el turno de palabras, no ha habido intervenciones y en la votación, **la Corporación, por unanimidad, ha adoptado los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Proceder a la corrección de la plantilla orgánica de 2023.*

*SEGUNDO.- Dar publicidad a este acuerdo, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios municipal.*

**4.- Aprobar los modelos de declaración de intereses a formular por la nueva Corporación, si procede.**

*El Alcalde indica que son modelos genéricos a los que únicamente se les ha introducido el logo municipal.*

*Sin toma de palabras, **el Pleno de la Corporación, por unanimidad de las presentes, acuerda:***

*ÚNICO.- Aprobar los modelos de declaración de intereses.*

**5.- Si procede, aprobación provisional de la modificación puntual de determinaciones estructurantes de Plan Municipal de Irurtzun en el ámbito del SDG.**

*El Alcalde recuerda que esta modificación puntual ya fue provisionalmente aprobada, con los informes técnicos pertinentes, y que cuenta con los informes favorables del Departamento de Medioambiente.*

*Posteriormente, el Departamento de Ordenación del*



errekerimendu egin zituen, eta hau da gaur proposatzen den aldaketa puntualak aurretik onartutakoaren aldean duen aldaketa bakarra. Honen bidez autokarabanen eremuko erabilera-eremuko zati bat piska bat aldatzen da.

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea plan orokorraren aldaketari, espedientearen ageri diren termino eta baldintzetan.

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia NAOn eta Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratuz, eta espedientea Sakanako Mankomunitatera eta udal teknikarien txostenean ezarritakoaren arabera txostena egin behar duten erakundeetara bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean jarri ondoren, behin - behinean onartzea, dagozkion aldaketekin, eta espediente osoa Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko Sail eskudunari igortzea, behin betiko onar dezan.

## **6.- Erreku eta galderak.**

Alkateak idazkariari eman dio hitza, eta hark adierazi du, Comptos ikuskapenaren harira, besteak beste, Idazkaritzak txosten bat egin zuela udal-antolaketari buruz. Horri dagokionez, honako alderdi hauek nabarmendu ditu:

- Konparazio bat egin zen Irurtzongo langileen antzeko biztanleria duten Nafarroako hogeita udalerriren artean,

*Territorio realizó una serie de requerimientos que son la única variación que la modificación puntual que hoy se propone contiene respecto a la anteriormente aprobada, por la cual se modifica sensiblemente la franja de uso de la zona del área de autocaravanas.*

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación del plan general, en los términos y condiciones que figuran en el expediente.*

*SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública durante el plazo de un mes, mediante publicación del anuncio en el BON y los diarios editados en la Comunidad Foral, y remisión del expediente a la Mancomunidad de Sakana, así como a los organismos que deban informar en virtud de lo establecido en el informe de los técnicos municipales.*

*TERCERO.- A la vista de la información pública aprobarlo provisionalmente, con las modificaciones que procediesen, y remitir el expediente completo al Departamento competente en materia de Ordenación del Territorio y Urbanismo para su aprobación definitiva.*

## **6.- Ruegos y preguntas.**

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria, quien expresa que, al hilo de la inspección de Comptos, entre otras muchas cosas, se emitió un informe de Secretaría sobre la organización municipal. Sobre el mismo, resalta los siguientes aspectos:*

*- Se llevó a cabo una comparativa entre el personal que veinte municipios de Navarra de población similar*



horietako bakoitzean udaletxean administrazio lanetan ari diren langileak aztertuz. Hala, udalerrri bakoitzeko biztanle-kopurua administrazio lanetan ari diren langileez zatitu zen, langile bakoitzari zenbat administratu artatzea dagokion kalkulatzeko. Konparazio horretan, Irurtzun 19. postuan geratzen zen, eta pertsona bakoitzeko lan-karga askoz handiagoa zen antzeko beste udal batzuen bano, are herri handiagoena ere.

- Oso korporazio aktiboa da, eta beste toki-erakunde askok baino espediente gehiago ditu irekita, eta horrek lan-karga handiagoa dakar berekin.

- Espedienteetan sartzen den ia edozein izapide berezi edo berri, Idazkaritzaren gain jarzen da.

Idazkariak azaldu du lan-karga horrek aldi baterako ezintasuna ekarri ziola, 2022. urtearen hasieran, antsietateagatik, eta borondatezko alta hartu zuela, baina 2023an berriro ere aldi baterako ezintasuna eragin diola, antsietateagatik eta depresioagatik. 2023an borondatezko alta hartu du berriz ere, Kontuen Ikuskaritzari eta legegintzaldia amaitu baino lehen irekitako gainerako espedienteerantzuteko, eta une honetan lantzen ari den espedienteak eta horrek dakarren lana zerrendatzen ditu: langileak hautatzeko lau prozedura, bi lizitazio, Comptos Ganberaren gomendioei erantzuteko berrikuntzak, igerilekuak irekitzea, hauteskundeak, ohiko dirulaguntza guztiak, kide anitzeko organoen saioak eta beharrezko dokumentazioa, langileen ordezkapenak, eguneroko gai txikiak eta jendearen arreta.

*a la que tiene Irurtzun tiene prestando labores administrativas en el Ayuntamiento. Así, se dividió el número de habitantes de cada municipio entre el personal administrativo, para calcular el número de personas administradas que a cada persona trabajadora le correspondería atender. En esta comparativa, Irurtzun quedaba en el puesto 19, con una carga de trabajo por persona muy superior a la de otros Ayuntamientos similares e, incluso, mayores.*

*- Se trata de una Corporación muy activa que tiene mayor cantidad de expedientes abiertos que muchas otras entidades locales, lo que conlleva mayor carga de trabajo.*

*- Cualquier trámite extraordinario o nuevo que se incluya en los expedientes, prácticamente, recae sobre Secretaria.*

*La Secretaria expone que a ella, personalmente, esta carga de trabajo le trajo una incapacidad temporal por ansiedad a principios de 2022, de la que se cogió el alta voluntaria, pero que en 2023 le ha llevado a una incapacidad temporal por ansiedad con depresión. En 2023 se volvió a coger el alta voluntaria para dar respuesta a la inspección de Comptos y demás expedientes abiertos antes del final de legislatura, y enumera los expedientes que ella está llevando ahora mismo y el trabajo que ello le conlleva: cuatro procedimientos de selección de personal distintos, dos licitaciones, innovaciones para responder a las recomendaciones de Comptos, la apertura de las piscinas, elecciones, todas las subvenciones ordinarias, preparación de documentación y sesiones de órganos colegiados, sustituciones de personal, cuestiones menores ordinarias del día a día y atención al público.*



- Azken hori azpimarratzen du bereziki, esaten baitu nahi duen edonork zuzeneko sarbidea duela Idazkaritzara, pertsonalki edo telefono bidez, edozein egunetan eta edozein orduetan, aurretiko hitzordurik eta bestelako filtrorik gabe, horrek kontzentrazioari begira dakarren zailtasunarekin.

- Adierazi du Idazkaritza ofizial administrari eginkizunak betetzen ari dela, eta baita administrari laguntzaileenak ere. Gaineratu duenez, soldata araudiaren eta plantilla organikoaren arabera finkatuta dagoenez, eta A mailako langileek jaso beharreko orduko prezioa D mailako langileek jaso behar dutenaren ia bikoitza denez, uste du funts publikoak ez direla erabiltzen ari beharko luketen eraginkortasunarekin.

Aurreko guztiagatik, adierazi du Udala antolatzeke modu bat proposatu duela, baina beste asko ere egon daitezkeela, eta Udalbatzaren erabakia dela. Amaitzeko, ondorioztatu du langile gehiago behar direla eta aldaketa sakona egin behar dela udalaren antolaketan eta funtzionamenduan.

Alkateak hartu du hitza, eta ados agertu da idazkariarekin. Beraz, jakinarazi du dagoeneko hasi dela lanpostuen balorazioa egingo duen eta antolaketa-proposamen bat egingo duen enpresa bat kontratatzeke prozesua. Gaineratu du, aurrekoaz gain, azken hilabeteotan aparteko lan-karga handia egon dela, pandemiaren, langileen egonkortze prozesuen, Europako funtsen, Kontuen Ganberaren ikuskapenaren eta bestelako ondozioz. Amaitzeko, eskerrak eman dizkio idazkariari jarreragatik.

Ondoren, Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, eta bat etorri da esanez, lan-karga gehiegizkoa bada eta,

*- Hace especial hincapié en esto último, diciendo que cualquier persona que quiera tiene acceso directo a Secretaría, sea personalmente o vía telefónica, cualquier día y a cualquier hora, sin cita previa ni filtro alguno, con la dificultad que ello conlleva de cara a la concentración.*

*- Refiere que desde Secretaría se están cubriendo funciones de oficiales administrativos e, incluso, de auxiliares administrativos. Añade que, estando fijado el salario por la normativa y la plantilla orgánica, y siendo el precio por hora a percibir por el personal de nivel A casi el doble que el que debe percibir el personal de nivel D, entiende que los fondos públicos no están siendo utilizados con la eficiencia que debieran.*

*Por todo lo anterior, indica que ha propuesto una manera de organizar el Ayuntamiento, pero que pudieran haber infinitas más, siendo decisión de la Corporación. Finaliza concluyendo que hace falta más personal y un cambio profundo en la organización y funcionamiento municipales.*

*El Alcalde toma la palabra, y se muestra de acuerdo con la Secretaria, por lo que informa de que ya se ha iniciado el proceso para la contratación de una empresa que realice una valoración de los puestos de trabajo y que haga una propuesta de organización. Añade que, además, los últimos meses ha habido una carga de trabajo extraordinario muy importante, debido a la pandemia, los procesos de Estabilización del personal, los fondos europeos, la inspección de la Cámara de Comptos y demás. Termina agradeciendo a la Secretaria su predisposición.*

*A continuación, toma la palabra don Enrique de la Calle, quien coincide en que, si la carga de trabajo es*



gainera, lanpostu bakoitzaren eginkizunak behar bezala definituta ez badaude edo behar bezala bereizita ez badaude, agerikoa dela lanpostuak baloratu behar direla.

Alkateak erantzun du eskatu zitzaion txostenerako Idazkaritzak egin zuen taularekin langile gehiago behar zirela ohartu zela eta, gainera, plantilla organikoan lanaldi erdiko administrari laguntzaile lanpostu bat badagoela. Gaineratu duenez, karga hori dela eta, ezinezkoa da zereginak erraztera datorren Administrazio Elektronikoa ezartzea.

Enrique de la Calle jaunak esan du Udalean zinegotzi bezala daramatzen 16 urte hauetan karga handiagotzen ikusi duela espedienteen kudeaketari dagokionez. Egoera dela-eta atsekabea azaldu, eta idazkariari bere lana eskertu dio.

Ana Santander andreak hartu du hitza, eta esan du, gai pertsonal batengatik udalaren funtzionamendua ikusteko aukera izan duela, eta, bere ustez, eskertzekoa dela arreta, baina ez dela zerbitzu ona ematen ari.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 15:25ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

Alkatea / El Alcalde,  
Aitor Larraza Carrera

*excedida y, además, las funciones de cada puesto no están debidamente definidas o no están siendo debidamente separadas, resulta evidente la necesidad de una valoración de los puestos de trabajo.*

*El Alcalde responde que con la tabla que Secretaría realizó para el informe que le había sido solicitado fue conocedor de la necesidad de más personal que, además, en la plantilla orgánica ya existe un puesto de auxiliar administrativo a media jornada. Añade también, que debido a dicha carga no está siendo posible parar a implantar la Administración Electrónica que viene a facilitar las tareas.*

*Don Enrique de la Calle dice que en los 16 años que lleva como edil del Ayuntamiento, ha observado una mayor carga en cuanto a gestión de expedientes se refiere. Muestra su pesar por la situación y agradece su labor a la Secretaria.*

*Toma la palabra doña Ana Santander, quien relata que, por un tema personal, ha tenido ocasión de ver el funcionamiento municipal y opina que es de agradecer la atención pero que no se está prestando un buen servicio.*

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 15:25 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extendiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

ZIURTATZEN DUT  
Idazkaria / La Secretaria  
Eguzkiñe Aiesa Andres